



4-5 ELKARRIZKETA

**Maialen Chourraut piraguita baikor Jokoetarako**

Maialen Chourraut Londresko Villa Olimpikoan da pasa den astelehenera piraguismoan ur bizietako slalom proba prestatzen. Hilaren 30ean, astelehenera, Hertfordshiren Lee Valleyko ur-kirol gunean egingo dira kanporaketak, proba horretan lehenengo 15en barruan sartzen bada finalerdia izango du abuztuaren 2an. Kirolariarekin hitz egiteko aukera izan genuen Londresera joan aurretik eta itxaropentsu dago. Lan ona egin dezakeela argi dauka gazteak.



6 KIROLA

**Tenis txapelketako finala gaur jokatu da**


Lasarte-Oriako III. Tennis txapelketako finala gaur, ostirala jokatu da Kirol gunean. Uztaileko lehen astean eman zitzaion hasiera lehiaketari eta gaur Muñoz-Baroja eta Lorenzo herritarren arteko norgehiagokan erabakiko da irabazlea nor den. Finalarekin batera, hirugarren postua ere jokatu da.

# Euskaldun kopurua igo da

Kalean entzuten diren elkarrizketen laurdena euskaraz dira

**Aurreko astean udalak "Lasarte-Oria zenbakitan" azterketa sozioekonomikoaren berri eman zuen. Honetan euskararen ezagutza eta erabileraren inguruko datuak jasotzen dira eta hauen arabera herritarren %39,4 euskara ondo ulertu eta hitz egiten du gurean eta beste %24 ondo ulertu eta ia hitz egiteko gaitasuna du. Hala ere bada landu beharreko esparrua eta batez ere etxe barruko erabileran dago hutsunea.**

Lasarte-Oriako biztanleria (%), euskararen ezagutza mailaren arabera. 1981-2006.



Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak.

**B**iztanle euskaldun edo ia euskaldun kopurua etengabe hazi da Lasarte-Orian azken hamarkadetan. Hala dio udalak berriki aurkeztutako azterketa sozioekonomikoan.

Honen arabera euskalduna da Lasarte-Oriako biztanleriaren %39,4, ondo ulertu eta euskaraz hitz egiten duena. Honi gehitu behar zaio ia euskaldunak diren kopurua, hauen portzentaia %24,3 da eta euskaraz ondo ulertu arren, hitz egiteko gaitasunik ez dutela diotenak dira.

Euskaldunen etengabeko igoera honi, erdaldun elebarkarren kopurua lotu behar zaio. Kasu honetan nabarmen bera egin du portzentaia 1981. urteko datuekin alderatuta eta %10 baino gutxiago dira egun soilik gaztelera ulertu eta hitz egiten duten herritarrak.

**Erabilera erronka**

Hizkuntzaren ezagutzak hobera egin badu ere, ez da berdina gertatu etxeko erabilerari dagokionez.

Etxean gaztelera erabiltzen duten pertsonen portzentaia gora egin du %1,9. Honen arrazoia izan daiteke D ereduaren nagusitasuna. Herriko gurasoek D ereduaren aldeko apostua egin dute euren seme-alabentzat erdaldunak izanda. Honek eragin du bere seme-alabak euskaldun izatea baina eurekin etxean oraindik gaztelera izatea erabiltzen den hizkuntza.

Kaleko erabilerari dagokionez, euskararen presentzia handiagoa da eta entzuten diren elkarrizketen laurdena euskaraz dira. Geroz eta gazteagoak izan orduan eta gehiago dira euskarazko elkarrizketak.

**Euskara Batzordea baikor**

Udaleko Euskara batzordeari datu hauen inguruan balorazioa eskatuta, baikor azaltzen dela esan daiteke, "datu hauek, etorkizunera begiratu, ziurtatzen digute lasarte-oriatar orok euskara hitz egiteko gaitasuna izango duela, gaur egungo %39,4 hori hobetuz".

Hala ere, onartzen dute egin beharrekoak asko direla oraindik. Besteak beste, euskararen erabilera adinarekin batera jaisten ari dela erakusten dutelako datuek. "Euskara, azken finean, ez da ikastolan, lanean edota euskaltegian hitz egiten soilik. Eskuarteetan ditugun datuak kontraesanak ere ekartzen dizkigu".

Alde batetik familietan dagoen euskararen erabilera ez da %15era iristen, kontu-

tan izanda ere urte urte datu hau txikitzen ari dela; bestetik, Udal Euskara Zerbitzuak dituen 2011 urteko datuen arabera, %23,5a da gure herriko kaleetako euskararen erabilera eta gainera, datu hau pixkanaka handitzen doa.

**Familian erabilera landu**

Datuen arabera "argi dago, eta lehen esan bezala, euskararen erabilera etxe barruan hasten dela galtzen". Hau dela eta Udal Euskara Zerbitzuti ikusten da erronka famili euskaldunen eskuetan dagoela, egunegun gero eta gehiago direnak, "gure hizkuntzaren erabilerari eusteko eta kontsumitzen ditugun produktu-zerbitzuak (telebista, irratia, aldizkari, egunkariak) euskaraz kontsumitzeko ohitura sustraitzeko".

# ALBA

## ARROPA DENDA

### Merkealdiak!!

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Neure kabuz



Mailu Arruti

Ostiral beltzak

Azken aldi honetan ostiralak beltzak bihurtu dira. Baina niri termino hau ezaguna egiten zait eta ez dakit oso ondo zergatik. Eta gaur egunean badaukagu askojakitun bat eta hari galdetzea otu zait. Googlen sartu eta hor topatu ditut "ostiral beltzari" buruzko aipamen zein baino zein beltzagoak.

1977an, Iranen zibilen hilketa ikaragarria.

1983an, Venezuelan bolibarraren devaluazioa.

1987an, Panaman errepresio politiko latza.

1939an, Australian sutea.

1945an, porrot egin zuen aliatuen aire erasoa.

AEBn, Gabonetako erosketen lehen eguna. "Accion de gracias" egunaren bikaramuna. EH???

Azken honek ez al du pusketzen aurrekoen belztasunaren iluna?

Bai inondik ere, egun horretan denda txikietan beharpenak hasten omen ziren eta zenbakiak gorritik beltzera pasa horren ondorioz.

Hara non aurkitu dugun beltzaren esanahi positiboa aizue!

Azken aldian ostiralak beltzak bihurtu dira guretzat eta Madril aldean funtzionarioak kolore horretako arropaz jantzita hasi omen dira lanera joaten ostiralean. Ea zer neurri berri ezartzea okurritu zaien (gure) agintari argieki ostiral honetan, lutoz jasotzeko.

Kontu hau ordea ez da oraingoxeaa. Gure aitak esaten zuen: Bai holakoren etxean, bi ostirale-tako aste asko izaten ziren. (Langileek larunbatetan jaso ohi zuten soldata). Eta zenbait etxetan astea bi ostiralez luzatzen zen.

Ostirala ez zen ba aste bukaera hasten zen egun zoragarri hura?

Zorion agurrak



Oier

Zorionak Pirata!! Bost txokomarrubizko muxu goxo. Ondo pasa!



Alex

Zorionak! Zure 5.urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partetik!!!



Enara

Zorionak 7 urteko andereñoa. Ez pasa txuxekin! Libe, aita eta amaren partetik.



Jon

Zorionak!!! Bost muxu handi famili osoaren partetik!!!



Malen

Zorionak marisorgin!!! Sei muxu handi famili osoaren partetik!!!



Izaro

Zorionak bihotza, marrubizko 4 muxu eta besarkada handia gurasoen partetik.



Bakartxo

Zorionak kaxera!!! Zutaz ahaztuko nitzela uste zenuen? Muxu asko Marianen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 50 metro karratuko etxebizitza alokatzen da Billabonan. Harremanetarako, 687 422 106.
- Pisu ia berria alokatzen da: 2 logela eta 2 bainurekin, altzari guztiekin... Garajea aukeran. 650016900
- Bi logelako etxea alokatzen da Iñigo de Loyola kalean. 650 euro. 627 995 760
- Garaje bat alokatzen dut Lasarte-Oriako erdialdean. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.
- Apartamentua alokatzen dut Lasarte-Oriako erdialdean. 54 metro karratu ditu eta logela bat du. Harremanetarako, 678 582 706.
- Bi garaje alokatzen dira Urbarten. Oso ekonomikoak. Marisol 697 905 233.
- Etxea alokatzen da Usurbilen. Lau logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Garajea aukeran ere bai. 649 26 17 04 Marijo.

Salerosketak

- Haurrentzako janaria prestatzako Babycook Beaba salgai, erabili gabea. Tfnoa, 661 396 299.

Lan-eskaintzak

- Bi ume zaintzeko neska euskalduna behar da irailerako. Ordutegia 17:00etatik 20:15era izango da. Harremanetarako telefonoa, 685 751 268.

Lan-eskariak

- 45 urteko emakumeak lana egingo luke: umeak zaintzen, etxeak garbitzen...943365149
- Emakumea eskaintzen da orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia dauka. Harremanetarako, 669 931 026.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Lan bila nabil, edozertan egingo nuke, Reina Cruz 686820145

Bestelakoak

- Mobilhome bat alokatzen da uztaila eta iraillean, Landetako Leon lakuan. Harremanetarako, 660 057 667.
- Pisu alokatu nahiko nuke, Lasarte-Oria erdian. Harremanetarako, 602 187 900, M. Afzaal.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ivan Barrantes Delgado, uztailaren 13an.
- Hugo Garate Jimenez, uztailaren 11an.



Heriotzak

- Maria Miguel Dominguez, uztailaren 16an, 76 urte zituela.
- Mari Carmen Iribar Iribar, uztailaren 14an, 57 urte zituela.



Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuko	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 20</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Larunbata, 21</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Igandea, 22</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Astelehena, 23</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Asteartea, 24</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Asteazkena, 25</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Osteguna, 26</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Chula, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

## ANTZERKIA

# Meategiko argi ilunak kabaret ikuskizunean

Zornotzako Markeliñe antzerki konpainiak kale ikuskizun berezia dakar Okendora

**Markeliñe konpainiak antzerki emanaldia eskainiko du gaur 22:00etan Okendo plazan. Uda garai honetan Kultura sailetik garrantzia eman nahi izan zaie kale ikuskizunei. Kasu honetan meatzarien eguneroko gogorra kontatzen du "Carbon Club" lanak hori bai, kabaret baten oholta gainean agertzen dira protagonistak eta umoreak eta musikak bere lekua hartzen du. Efektu ikusgarriak erabiltzen dira antzezlanean.**



Antzezlanean uneetako bat, Kabaretaren oholta gainean Jose meatzari gaztea.

liblilde luzeko antzerki taldea da Markeliñe. Kale antzerki eta ikuskizunak ondo ezagutzen dutezten kideek osatzen dute hau. 1985ean sortu zen taldea Zornotzan, eta aktoreen keinuetan oinarritzen den antzerkia egiten dute batez ere, hitzek baino euren interpretazioak du garrantzia gehien.

Gaurkoan ikusi ahal izango den antzezlanean barrea eragiteaz gain, istorio sakona kontatzen duela dio antzerki konpainiak.

"Carbon Club" antzezlanean meatzariak eta hauen familiak dira protagonistak, guztiak kabaret ikuskizun baten baitan aurkezten dituzte euren eguneroko arazo eta bizipenak. Horrela musika eta

dantza nagusi izan arren, ikusleei pertsonaiek jasaten duten sufrimendua erakustea ere bilatzen dute Markeliñeko aktoreek.

## Istorio hungarria

"Carbon Club" antzezlanean sortzaileen hitzetan "gogoetarako tartea zabaltzen du, izan ere bizitzari buruzko metafora bat aurkezten dugu". Adiskidetasunaren balioa, patu tragikoa, bizitzeko ausardia, sakoneko lurra, hurbil dauden gerrak, gizarte aldarrikapenak... daude antzezlanean honen istorioaren oinarrian. Honekin batera, meatzarien lan duin eta neketsuan, bizitza eman

zuten heroi anonimo guzti horiei mirespenez eskainitako omenaldia izan nahi du.

## Iluntasunean itzal bila

Meategiko kondaira baten arabera, meategia hain da iluna, itzalak ere haien jabeengandik galdu egiten direla. Jose, istorio honetako protagonista da.

Meatzari gaztea da Jose eta galdutako itzal gisa ibiltzen da meategiko galeriatan barena. Bidaia sentimental, xume eta harritua da, beldurra ezkatzen duena bere egunerokoan aurre egiteko. Bihotzean daramatza bere bizitzan eragina izan duten

personak: neskalaguna, adiskide mina, familia, laneko nagusia... Meategi barruan galdurik dabilen mamu gisa, ezinezko irteeraren baten bila ari da.

Halako batean, galerian, urrunean, neoizko argiak ikusten ditu. Argira hurbildu ahala, bertatik irteten den abestia izaten du: "Yo no maldigo mi suerte porque minero nací..."

Sartu eta berehala, ahotsa sensual batek ongi etorria ematen dio meatzari gazteari "Carbon Club"-era, pikotxaren eta daratuluaren klubera, meatzariak, berdin dio bizirik edo hilik egon, putzuan bizi-

takoak kabaretaren erritmoan kontatzen dituzten tokira.

Hemen entzungo dituzte batzuek laneko nagusia kritikatzen besteak hilabeteko eskelak zenbatzen dituzten bitartean. Beste batzuek esaten dute meategia hiltzen ari dela eta merkeagoa dela ikatza Errumaniatik ekartzea. Ez hori bakarrik, ikatza eta emakumeak ekartzea hobe. Espontaneo bat sentsualitate osoz kulunkatzen da agertzean, meatzarien erritmoan, koplak abestuz.

Markeliñe konpainiak dagoeneko ikuskizun hau Euskal Herriko zein kanpoko plaza askotan antzeztu du eta ikusleen aldetik harrera beti bikaina izan da. Hau dela eta Torrejón de Ardoz-en ospatutako antzerki jaialdian bigarren saria eskuratu zuen.

## Eguraldiaren baitan

Kasu honetan Okendon izango da ikuskizun berezi hau doan ikusteko aukera. Eguraldi oso txarra egitekotan bertan behera utziko litzateke ikuskizuna izan ere, sua eta efektu ikusgarriak erabiltzen dira honen baitan eta kalean, eremu irekian behar du izan Kultura sailetik azaldu moduan.

"Eguraldiaren aurreikuspenak ez dira txarrak eta euririk gabe eutsiko duela dirudi, xirimiria egitekotan antzerkia berdin Okendon egingo da. Ikuskizun hau ezin da eremu itxira eraman".

## Karmenak ospatu zituzten Orian

Oriako egun handia da Karmengo Ama Birjinarena eta bizilagunek urtero moduan ospatu nahi izan zuten astelehenean. Ohi bezala Meza Nagusia egin zen eta ostean herri hamaiketako gerturatu ziren guztientzat.

Hamabietan puntual hasi zen meza nagusia Orian Karmen Ama Birjinaren omenez. Hau gidatzen herriko bi apaiak izan ziren, Juan Luis Murua eta Xabier Andonegi Ramon Uribe Etxeberriarekin batera.

Jendetza bildu zen mezan eta besteak beste, bertan ikusi ahal izan ziren PSE-EE-ko udal talde ia osoa, Jesus Zaballos alkate ohia buru, Plataformako Ana Isabel Prieto eta EAJko Boris Nogales eta



Hamaiketako herrikoia egin zen Meza Nagusiaren ostean.

Estitxu Alkorta. Mezan aurten hildako auzotarrak gogoratu zituzten omenaldi modura. Horretaz gain, Pilar Catalinak abestu eta bi dantzari gaztek agurra dantzatu zuten.

Oriatarraren festa egunarekin bat egin nahi izan zuen

ere Pablo Barrio alkateak eta mezaren ondorengo hamaiketakoan izan zen. Bertan Solano eskolako trikitixen doinuak lagun, Oriako auzotarrak bildu ziren auzoko jaiei, ekintza honekin bada ere, eusteko helburuarekin.

## TAILERRA

### Malabare ikastaroa haurrentzat

Udako haur ikastaroen baitan azken aurreko saioa egingo da bihar 10:00etatik 13:00etara. Kasu honetan Malabare ikastaroa izango da Andatza plazan egingo dena. Haur eta gazte-txontzat antolatutako ikastaro hauetan azkena uztailearen 28an izango da Elizatze plazan. Bertan birziklatze ikastaroa egingo dute eta haurrek etxetik plastikozko botilak, papera etab. eraman beharko dituzte.

## MUSIKA

### Aupa Quartet Donostiako Jazzaldian

Asier Suberbiola lasarteoriatarren Aupa Quartet soka-laukoak hainbat kontzertu eskainiko ditu Donostiako Jazzaldian. Lau instrumentu klasikorekin musika moderno sortzen du taldeak junk-etik jazz-era eta latin-etik folkera. Taldea osatzen duten lau musikariak, Asier horietako bat, Bartzelonan bizi arren askotan etortzen dira Euskal Herriera eta kasu honetan Donostian entzuteko aukera izango da.

Jazzaldian hiru kontzertu eskainiko dituzte eta horren harira, astebeteko bira egin dute Gipuzkoako hainbat herrietako kontzertuak eskainiz. Gaur, uztailek 20, Donostiako Altzerri tabernan, 23:30ean, Aupa Quartet & friends kontzertua eskainiko dute; 21ean, 23:30ean, Jazzaldiaren baitan ere Nauticool karpan izango da emanaldia eta 22an Kursaallean 18:30ean. Uztailearen 23an bukatuko du taldeak kontzertu bira Oñatin.



Maialen Chourraut Piraguista

“Hamar urte daramat prestatzen”

Duela lau urte Pekingo Joko Olinpikoetan sartutako arantza atera nahi du Londresen Helburua, ahal duen ondoen aritzea, eta ametsa, urrezko domina ekartzea, direla dio

Maialen Chourraut Londresko Villa Olinpikoan da pasa den astelehenetik piraguismoan ur bizietako slalom proba prestatzen. Hilaren 30ean, astelehenean, Hertfordshiren Lee Valleyko ur-kirol gunean egingo dira kanporaketak, proba horretan lehenengo 15en barruan sartzen bada finalerdia izango du abuztuaren 2an, ostegunean, eta 10 onenen barruan bada, finalean izango da egun berean arratsaldez.

Jon ALTUNA IZA

Oria ibai ertzean hitz egin genuen Maialen Chourraut herriko piraguistarekin hilabete amaieran Londresko Joko Olinpikoetan daukan eronka garrantzitsuari buruz. Buru belarri aritu da entrenatzen azken urteotan hitzordu honi begira eta dena emateko prest dago.

Sekula arraun egin al duzu Ori ibaian?

Nik ez, behin ere ez. Taldeki- debatzue egin izan dute ur asko datorrenean. Hor irli inguruan "rulo" edo kizkur bat egiten da, eta olatuan jolasten ibiltzen dira, ibaiak ur dezente eramaten duen.

Agian egunen batean nik ere egingo dut.

Nahiz orain ibaietan aritu, zu itsasoan hasi zinen arranean?

Bai, nire Klub-a, Atletico San Sebastian kontxako hondartzan dago.

Nahiz eta nirea ur bizietako alorra izan, kluba hondartzan kokatua dago eta orduan, paleatzen dituzten hasi ginen eta gero, pixkanaka, noizean behin ibaira eramaten gintuzten.

Hala ere itsasoko entrenamendua ere oso ondo etortzen zaigu: ezinezkoa da korrontean ondo ibiltzea, ez badituzu ur geldian teknikak lantzen. Lehenengo hor probatu behar dira.

Ur bizietako probetan hartzen duzu parte, ezta?

Bai, bakarrik ur bizietan lehiatu naiz, beti, klubean hasi nintzenetik.

Hori bai, txikia zarenan ez dizute proba ibai indartsu batean jartzen. Ibai nahiko geldian hasten zara makilak pasatzen eta pixkanaka zailtzen da.

Normalean txapelketak kanala egiten dira, ez ibaietan? Ibaietan ere jokatzen dira,

baina egia da geroz eta proba gehiago daudela kanal artifizialetan. Iaz, munduko kopa proba bat, ibai naturalean egin nuen, duela bi urteko munduko txapelketan, erdia zen kanal artifiziala eta beste erdia ibai, kanala bukatu eta ibairu pasatzen zinen, baina, bai, gero eta proba gehiago egiten dira kanaletan.

Nolakoak izaten dira kanalak? Oso desberdinak. Denetik aurki daitezke. Badira txikiak ere, baina kanak handi batzuek azpiegitu indartsuak dituzte, kanak oso ikusgarriak dira.

Ezagutzen al duzu Londresko joko olimpiadetakoa? Nolako kanala da? Zaila. Aurten askotan joan gara hango kanalera entrenatzen, guretzat garrantzitsua delako urak ondo ezagutzeko, korrontean ondo sentitzea eta ondo moldatzea, eta ahal izan dugun guztietan joan gara Londresera.

Kanal nahiko zaila da, oso tekniko eta oso fisiko. Piragua gelditzen duten ur jaitsiera asko ditu, eta baita piraguaren norabidea oso



Munduko azken hiru probatik bitan lortu du garaipena Maialen Chourraut-ek. Orain denboraldia borobildu nahi du Londresen. ATSS

Kirol honetan oso zaila da kinielan asmatzea. Hamarren artean edozeinek irabazi dezake. Guxtien huts egiten duenak irabaziko du.

erraz aldatzen dutenak ere. Kanal honetan ezin da piragua denbora guztian kontrolatua edukitzea, pixka bat beti joaten da, eta ibilbideak ez ateratzea zaila izango da.

Egokia al da zuretzat?

Bai, gustura ibili naiz, kanala ezagutu nuen lehenengo egunetik, zaila egin zait munduko guztiari bezala, baina gustura nabil.

Zein izango da olimpiadetan zure helburua?

Ahal dudana konpetiziorik hoberena egitea.

Dominarik espero al duzu?

Nik badakit konpetizio ona egin behar dela hor dagoela, baina nire helburua ahal dudana konpetiziorik onena egitea da, eta ametsa, urrezko domina nirekin ekartzea.

Badakizu zein egunetan parte hartuko duzuri?

Bai, aspalditik jarrita daude egun eta ordutegiak. Uztailearen 30 hasiko naiz, gero lehenengo 15etan sartuz gero, finalerdia eta finala uztailearen 2an izango ditut: finalerdian lehenengo 10etan sartuz gero, egun horretan bertan finala.

Zein izango da zure arerorik gogorrena?

Arerri dezente daukat. Bagara hamar bat neska eta edozeinek irabazi dezake.

Gainera kirol honetan oso zaila izaten da kinielan asmatzea. Ni hor nago, beraien artean.

Esan daitezke zu zeu zarela zure arerorik handiena?

Beno, ni nire buruarekin egongo naiz borrokan, probaren irteeran ahalik eta zentratuen egoteko. Egia da, ni ez naizela besteen aurka lehiatzen, ez da konfrontazioko kirol bat, nik nire jaitsiera egin behar dut, eta nire gauzak ondo egin behar ditut, besteak ez daude, bana-ka jaisten gara, beraz, ni naiz nire lehenengo arerioa.

Kirol honetan akatsak garesti ordaintzen dira, kontzentratua jaitzi beharko duzu, ezta?

Kale dezente egiten dira eta gutxi huts egiten duen pertsonak irabazten du. Guztiok egiten ditugu hutsak, baina akatsa zenbat eta handiagoa izan segundak galitzen ditugu, edota ibilbideak erabat aldatzen bagara, eta ate bat ukitu edo saltatuz gero, lehiaketa pikutara joaten zaigu.

Europako azken hiru probatik bi irabazita, momentu onean zaude... Nola ikusten duzu zure burua olimpiadeti begira?

Ondo, egia da azken lau urteotan maila onean aritu naizela entrenatzen eta baita lehiatzen ere, eta benetan gustura aurkitzen naizela. Gogor entrenatu dut, pila bat, eta joko hauetara gogoaz iristeko mentalizatzen egon naiz azken lau urteotan. Argi dago modu onean entrea-



Maialen Chourraut, Ori ibai ertzean, aurreko astean.

natu naizela ze emaitzek hori diote. Orain gertatzen dena da, azken puntua eman behar dugula.

Bizpahiru aste falta dira, zer egingo duzu egun hauetan?

Entrenatu eta entrenatu, egunero entrenatzen dut. Orain hemen nago Lasarten (astelehenean 9an), baina asteazkenean, 11n, Seu de Urgell-erara, han hemen baino gehiago entrenatu ahal izango dut eta 16an astelehenean Londresera joango gara jada.

Han Villa Olinpikoan egongo gara eta jada entrenamendua ere egiten dut, baina gogor izango, konpetizioan fresko egon behar dugulako, entrenamendu gogorrenak jada egin ditugula esan dezaket, baina ezin gara gelditu.

Hemen egun zaren egunetan ere entrenatu al duzu?

Bai goizetan egin ditut entrenamendua eta arratsaldetan beste zeregin batzuek.

Zenbat denbora daramazu Seun entrenatzen?

2001. urtean ekipaon sartu nintzenetik denbora asko pasa dut han, eta 2005ean bertan bitzitzen gelditzea erabaki nuen. Lehen furgonetan pasa-

tzaren nuen ia egun guztia, hemen ibaira joan eta entrenatzeko edota Seura joateko. Hiltabetean bi aste han pasatzen nituen gutxi gorabehera, eta azkenean han gertatzen erabaki nuen.

Eta zenbat denbora joan da azkenengo aldir etxera etorri zinetetik?

Duela bizpahiru aste egun nintzen baina egun erdi bakarrik, eta hori baino bi aste lehenago beste egun bat. Gutxi, Aste Santuan eta gabonetan ere egun nintzen.

Noiz hasi zinen Olinpiada prestatzen?

Gogor entrenatzen badaramat hamar urte. Egia da gero Pekingo olimpiadetan gaizki joan zitaizidala eta egun horretatik Londresen pentsatzen egon naizela. Urte batzuek daramazkit oporrak egin gabe. Denboraldia bukatu eta seguitan hasten naiz entrenatzen. Ea bere fruitua ematen duen.

Hamar urte daramat gogor entrenatzen eta Pekingo olimpiadan gaizki joan zitaizidan egunetik Londresen pentsatzen egon naiz.

Badakit jaitsiera ona egin behar dela, baina nire helburua ahal dudana konpetiziorik onena egitea da, eta ametsa, urrezko domina nirekin ekartzea.

Nire buruarekin egongo naiz borrokan, irteeran zentratua egoteko. Ez naiz besteen aurka lehiatzen, bana-ka jaisten gara, nik nire jaitsieran gauzak ondo egin behar ditut, beraz, ni naiz nire lehenengo arerioa.



Londresko kanala zaila baina gustukoa du lasarteoriarrek. Aurten behin baino gehiagotan izan da bertan ondo ezagutzeko. ATSS

Pekingo olimpiar jokoan oroitzen duzu orain artean, bat gogortzen al duzu berezi?

Ez, ezin konpetizio ondo atera, eta emaitza on baten bila nindoa.

Eta konpetizioaz aparte, nolako zen hiri olimpiakoa?

Ez ginen Villa Olinpikoan izan, noizean behin joaten ginen, ordu batera zegoen kanala eta gertu zegoen hotel batean ginen. Dena den, Olinpiadetera ez zoaz jokoak zer diren ikustera, konpetizio on baten bila zoaz, eta ondo ateratzen ez denean... bai, guzta batzuek ikusten dituzte, disfrutatzen duzu, baina ez zatorzu bueltan ilusioz bete.

Olinpiadetak proban zerk izango du garrantzia gehiago, orain arteko entrenamendua edo kontzentrazioa?

Nik uste, gako, orain arte egindako entrenamendu guztia izango dela.

Azken urtetan hain ondo

eta hainbeste entrenatuta emaitza on baten probabilitate handi bat irabazita daukat, orain behar dudana da irteeran kontzentrazio ona lortu eta jaitsieraren ezusteko gehiagi ez izatea.

Hainbat garaipen eskuratu duzu orain artean, bat gogortzen al duzu berezi?

Bai, 2009an Seu de Urgellen egin ziren munduko txapelketan bigarrena izan nintzen eta hori ez dut inoiz ahaztuko. Gure taldearentzat munduko mailako lehen domina inbiduazal izan zen.

Sellako jaitsieran parte hartu al duzu sekula?

Ez, ez dut parte hartu, diziplina ere ezberdina da, nik slaloma bakarrik egin dut, beste gauza batzuek ere probatu ditut, baina gauzak ondo prestatzea gusztatzen zait.

Zerbait esan nahi al diezu herriarrei?

Bai, eskerrik asko, ematen didaten babes guztiarengatik. Ikusi ditut denda batzuek nire argazkia duen posterrarekin. Ea zerbait egiten dudan han, Londres-en, eta pozen bat ematen diotan herriari.

ADURIZ DE LASARTE S.A. Solomoa baratxuritan Odolkia- Solomozintutua Etxeko txorizoa Tripakial- Saltxitxak Basurde burua Txistorra Baserri pateak BERTAKO FABRIKAZIOA Loidi/Barren Kalea 3 • Tel.: 943 361 278 - 943 361 655 - 943 362 451 Lasarte-Oria



Lee Valley White water centre-a 2010ean eraiki zuten bertan olinpiar slalom proba egiteko. Uztailean 30ean hasiko da.

## LABURRAK.-

## Kaskante udaltzainak bi urrezko domina lortu ditu Europako Jokoetan

Lasarte-Oriako udaltzaina den Imanol Kaskante uztailearen 7 eta 8an Tenerifin izan zen Suhiltzaile eta polizien IV. Europako Jokoetan.

Indoor arraunketan parte hartu zuen banakako zein bikotetako proban eta bietan garaile izan zen.

Banakakoan 2.000 metro egin behra zituzten parte hartzaileek eta herriko udaltzainak 6 minutu 28 segundo eta 69 ehunekoetan egin zuen. Bigarrenak Amallobieta euskalduna berak baino 29 segundo gehiago behar izan zituen.

Bikotekakoan, Bort katalanarekin batera Amallobieta eta Teruel bikotearen aurka lehiatu behar izan ziren. Lehia berdindua izan zen, baina azkenean 15 segunguko errenta ateratzen zuten.



## Beltzak Errugby taldeak saski bat banatu du

Lasarte-Oriako Beltzak Errugby taldeak urtero legez, San Pedro jaietan saskiak jarri ditu jokoan eta dagoeneko, saski batek badu jabea, Iñaki Degraciari.

Degraciari Balerdi Harategiak emandako haragi sorta eta mariskoa eraman zuen etxera.



Aitor Uranga eta Balerdi harategiko lagunek eman zioten saria Iñaki Degraciari. BELTZAK

## Buruntz-Azpi-k galeper ehiza antolatu du

San Ignazio egunean, uztailearen 31an, Buruntz-Azpi elkarteak galeper ehiza ekintza antolatu du Buruntz mendiko zelaietan. Galeperra kaiola eran izango da ehiza modalitatea. Honetan parte hartzeko, uztailearen 27a baino lehen eman behar da izena elkartearen egoitzan. Antolatzaileek ohartarazten dute ekintza honetan parte hartu nahi duten herritarrek agiri guztiak eguneratuak izan behar dituztela.

Bestalde, elkarteak jakin arazten du ehiza-baimena izan nahi duten herritarrek, Buruntz-Azpi elkarteko egoitzan egin dezaketela. Horretarako astearte edo ostegunetan 19:30etik 20:30era hurbildu behar dute elkartera.

## TENISA.-

## Muñoz-Baroja eta Lorenzo Lasarte-Oriako tenis finalean

Gaur 18:00etatik aurrera finala jokatuko da Kirol gunean

**Lasarte-Oriako III. Tenis txapelketako finala gaur jokatuko da Kirol gunean. Uztaileko lehen astean eman zitzaion hasiera lehiaketari eta gaur Muñoz-Baroja eta Lorenzo herritarren arteko norgehiagoka erabakiko da irabazlea nor den. Finalarekin batera, 3. postua ere egongo da jokoan.**

**Nerea EIZAGIRRE**

Uztailean zehar jokatu den Lasarte-Oriako III. Tenis txapelketa amaierara iritsi da. Gaur arratsaldean lehiaketako finala eta 3. postuko partida jokatuko dira.

Baina honen aurretik, asteartean, lehiaketako finalerdien txanda izan zen.

Finalaurretako lehen partidan, Muñoz-Barojak 6-3 eta 6-1 irabazi zion Raul Ramosi.

Nahiz eta emaitzak ez islatu, partida borrokatua izan zen. Tanto luzeak landu zituzten bi arerioek eta joko guztietan deuce-ra iritsi ziren. Baina Muñoz-Baroja izan zen puntuak bere markagailura igo eta finalerako txartela lortu zuena.

Arratsaldeko bigarren partidan, Santi Lorenzo lasarte-riatarrak Abel Hernandez izan zuen aurrez-aurre.

Jokalari hauen arteko hirugarren norgehiagoka izan zen. Astearteara arte, aurreko edi-



Hernandez, Ramos, Muñoz-Baroja eta Lorenzo finalaurretako partidak hasi baino lehen.

zioetako partidetan, bana berdinduak zeuden. Baina asteartean Lorenzoren alde jarri zen kontaketa, 3-6, 6-3 eta 6-4 garaitu baitzuen Hernandez.

Antolakuntzako lagunek azaldu digutenez, "Abel ohi bezala irmo mantendu da, bi eskuetako errebasa ongi erabili du. Gainera, nekaezina zirudien. Santik orde, bere kolpe indartsuak erakutsi ditu. Hasieran ez da oso fin ibili, baina amaieran erabakiorrak izan dira".

## Finala

Era honetara, gaur arratsaldean jokatuko den finalerako bi postuak erabaki ziren.

Beraz, 18:00etatik aurrera, Santi Lorenzo herritarrek Jose Mari Muñoz-Baroja izango du aurrez aurre.

Lorenzok ez du lan erraza

izango Muñoz-Barojak txapelketako garaile izan baita, lehenengo edizioa irabazi zuen. Hala ere, txapelketa irabazten zuen lehenengo lasarte-riatarrak izaten saiatuko da.

Txapeldunak Pablo Barrio alkatearen eta Taxio Arrizabalaga kirol saileko arduradunaren eskutik jasoko du saria.

Honetaz gain, hirugarren postua lortzeko Abel Hernandez eta Raul Ramosen lehia ere ikusi ahalgo da.

## Zozketak

Gauzak honela, antolatzaileek herritarrek gonbidatzen dituzte gaur arratsaldean Kirol guneko tenis pistara hurbildu eta tenisaz goza dezaten.

Gainera, sariak zozketatuak dituztela aurreratu dute, bai txapelketan parte hartu duten jokalarien artean, baita ikusleen artean ere.

## KIROL AGENDA.-

## PALA

Osteguna 26

**SANTA ANA TXAPELKETA, FINALA**  
Loidi-Barrengo pilotalekua, 18:00etatik aurrera  
3. postua,

Iñigo eta Carlines-Iñaki eta Joserra  
**Finala**  
Santi eta Bernaitz- Xabier eta Mikel

## IGERIKETA

Ostirala 20

**Bartzelona, 10:51ean**  
Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu Espainiako Infantilen Txapelketan 200 m. tximeleta proban izango da.

Larunbata 21

**Bartzelona, 10:35ean**  
Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu Espainiako Infantilen Udako Txapelketan 100 m. libre proban izango da.

**Ondarroa, 10:30ean**

Buruntzaldea IKT-ko hainbat igerilarik Ondarroako XXVII. Igeri itsas-lasterketan parte hartuko dute.

Igandea 22

**Bartzelona, 09:46ean**  
Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu Espainiako Infantilen Udako Txapelketan 100 m. tximeleta proban parte hartuko du.

## ATLETISMOA

Larunbata 21

**Toledo, 18:50ean**  
LOKEko Gaizka Ormazabal promesa mailako Espainiako txapelketan lehiatuko da.

Igandea 22

**Zumaia, 10:00etatik aurrera**  
Herriko korrikalariak Zumaiaiko IV. Flysch trail proban parte hartuko dute.

## DUATLOIA

Larunbata 21

**Getaria, 12:00etatik aurrera**  
Herriko hainbat atleta Getariako XI. Salbadore Biatloian izango dira.

## TENISA

Ostirala 20

**LASARTE-ORIAKO TXAPELKETA, FINALA**  
Kirol gunean, 18:00etatik aurrera  
3. postua  
Abel Hernandez-Raul Ramos

**Finala**

Jose Mari Muñoz-Baroja-Santi Lorenzo

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 21

**Ordizia, 10:00etan**  
Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteek Ordizian XXXIX. Txapel gorri proban parte hartuko dute.

Zumaia, 16:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek Zumaiaiko XXXIV Uda Saria-Joxe Mari Kortak oroimenezkoan parte hartuko dute.

Igandea 22

**Biyak Bat, 08:00etan**  
Ostadar SKT-ko zikloturistek itteera dute Sta. Engrazi ermitara.

## ZALDI LASTERKETA

Astelehena 23

**Hipodromoa, 16:30ean**  
Gipuzkoako Foru Aldundia saria izango da bigarren jardunaldian.

— Agenda —

Igandea 22, Okendo plazan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara



Eskulangintza azoka

Santa Ana egunaren ospakizunen barruan, XXVIII. eskulangintza azoka antolatu du Sendoki kultur elkarteak Udalaren laguntzaz. Euskal Herrian egindako hainbat produktu dastatu eta erosteko aukera izango da, gaztak, kontserbak, opilak, goxoki, erroskila eta pastelak, txokolatateak, ukenduak, urdaiazpiko, txorizo, pate eta beste hainbat kutixi. Guztira ia 30 produktore etorriko dira Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroatik.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Uztaila osoan zehar

Estudio del Pintor marrazki eskolako ikasleen erakusketa.



Andoain

Jaiak

KARRIKA AUZOA  
Ostirala 20-Igandea 22

Karrikako jaiak ospatuko dituzte andoaindarrek.

Lasarte-Oria

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Ostirala 20, 22:00etan

"Carbon Club" kale antzerkia eskainiko du Markeliñe taldeak.

Osteguna 26, 22:30ean

Urteko gertaeren laburpena era komikoan entzuteko aukera paregabea izango da Santa Ana eguneko parodian.



Musika

SIGLO XX

Larunbata 28, 23:30ean

Trifulca Posse taldeak hip-hop eta funk saioa eskaini du, udako kultur kalea zirkloaren barruan. Doan.



Ikastaroa

ELIZATZE PLAZA

Larunbata 28, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetzontzat

tailerra egingo dute. Materialak birziklatuz egin daitezkeen gauzak ikasiko dituzte.

Jaiak

ERDIALDEA

Osteguna 26, eguerdia

Santa Ana eguneko ospakizunak egingo dira. Brigitarren plazan luntxa eta Santa Ana karkaban dantza egingo da.



Astigarraga

Jaiak

ERDIALDEA

Larunbata 21-Larunbata 28

Santio eta Santa Ana jaiak ospatuko dituzte astigarragarrek.

Zubieta

Jaiak

ERDIALDEA

Asteazkena 25-Asteartea 31

Santio jaiak ospatuko dituzte. Soka-dantza, pilota... hamaika ekitaldi izango dira.

— Herritarren txokoa —

Odola ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan uztailaren 30an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Herrira-ren elkarretartea

Hileko azken ostiralero bezala, maiatzaren 25an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte har dezaten.

Galdutako txaketa beltza

Sorgin dantzako azken entseguaren ondoren, txaketa beltz bat aurkitu zen Landaberri BHIko patioan.

Ttaku kultur elkarteak bulegora hurbildu dadila jabea txaketa hau eskuratzeko.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Santa Ana parodia

Ttaku kultur elkarteak urtero antolatzen duen Santa Ana parodiako entseguak hasiko direla jakinarazten du.

Egunero uztailaren 24ra arte, 19:00etatik 21:00etara Manuel Lekuona kultur-etxean egingo dira entseguak.

Parodian parte hartu nahi duten herritarrek entsegu hauetara hurbiltzea besterik ez dute eta eginkizun bat emango zaie.

Bestalde, Santa Ana egunean Ama brigitarren komentuan luntxa egiten dela gogorarazten da. Honetan, herritar guztiek parte har dezakete.

— Hemeroteka —

Duela 1019 ale



Udako oporraldiei buruzko erreportajea argitaratu zen 1994ko uztailean. Honetan aisialdirako dauden aukera desberdinei erreposaoa egin zitzaien.

Bakoitzak ezagutu edo egin nahi duenaz gain, dirua ere kontuan izan behar da eta irudimena beharrezkoa da kasu horietan.

Itsasaldea izan zen orduan turista gehien topagunea. Lasarte-Oriako Goierri Bidaiak agentziako kideek aipatu zuten, "jendea gainezka izango da aurtan. Hemengo jendeaz gain, ingelesak eta alemaniarrek non nahi aurkituko ditugu. Pezetaren jaitsiera dela eta, atzerriko turistentzat merkea da".

Abentura bidaia eta ekintzak ere aipatzen dira erreportajearen. Herritarrek AEB-Kanada 4x4 kotxeetan zeharkaldia edo Guatemala, Kenia... kamioiez egitea gustuko duela adierazten da.

Gainera, lehen Udalak eskaintzen zituen aukerak ere azaltzen dira, hala nola, 18 eta 30 urte bitarteko gaztetzako edo jubilatuentzako bidaiak.

Eta azkenik, orduan indarra hartu zuen nekazalturismoa eta kanpinak ere aipatzen dira erreportaje honetan.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Antton Salsamendi Santa Ana Jaietako XXVIII. Eskularen Azokaren antolatzailea

# “Xarma handia dute artisauek”

- Okendo eta Mercero plazetan jarriko dira artisauek eta elikagai saltzaileak igandean
- Bozal eta Berasarte herriko aitzogileek laban berezia oparituko diote David de Jorgeri

**Berrogeitamar artisaubaino gehiago etorriko dira igandean Lasarte-Oriako XXVIII. Azokara euren lana erakutsi, dastatzeko eman eta ahal badute saltzera. Goiz eta arratsalde, gutxi gorabehera 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara, Okendo plazan jarriko dira artisauek eta Mercero plazan jaki saltzaileak. Jose Mari Berasarte eta Cesar Bozal herriko aitzogileek David de Jorge gonbidatu dute aurten azokara. Sukaldari “handiari” oparituko diote aurten, berak sukaldean erabiltzeko moduko altzairuzko laban zorrotz eta ikusgarria.**

Jon ALTUNA IZA

Euskal Herri osoko artisauek beteko da igandean Okendo ingurua. 30 artisaubaino erakutsiko eta salduko du bere lana, horietatik heren bat inguru Lasarte-Oriakoak: bitxigintzan aritzen diren, Vanessa Redondo eta Vanessa Herce, Koro Ortega eta Arantxa Martin, eta Susane Rebe, teilak margotzen dituen Leon Amondarain, larrugintzan diharduen Serbando Iglesias, abalorio eta pitxiak sortzen dituen Itziar Mendiluze eta labanak egiten dituzten Jose Mari Berasarte eta Cesar Bozal. Gainera Emakumeen Zentro Zibikoko, Biyak Bat Elkarte eta ehozieren taldeko hainbat lasarteoriatarren lana ere ikusi ahal izango da igandean goiz eta arratsalde. Antton Salsamendi antolatzaileak eman digu azokaren berri.

**Artisaubaino XXVIII. azoka da, hainbeste irau badu, erantzun ona izaten duela dirudi...** Izan genuen duela bi urte Udalen partetik Erdi Aroko azoka antolatzeko proposamena, probatu zuten eta ia ez erabaki zen Santa Anako errespetatzea eta orain arte bezala mantentzea. Uste dut Erdi Aroko edo “tematikoa” irailan egingo dela.

**Zein da azoka honen arrakastaren sekretua?**

Udan gaude eta herrian festa gogoia sumatzen da. Gainera, 28 urte pasa eta gero sustrai sakon eta sendoak ditu azokak, jendea azoka honen zain egoten da eta guk gustura antolatzen dugu.

Dena den, handicap edo eragozpen bat ere badaukagu: Donostia eta kostaldea oso hurbil dauzkagula eta eguraldi oso eguzkitsua egiten badu berandu etortzen zaigula jendea. Eguna lainotua edo erdipurdikoa bada, azoka ederra izaten da, beraz azokak arrakasta eduki eta jendetza hurbiltzeko eguraldi traketak xamarra behar dugu.

**Datozen artisaubaino zein nabarmenduko zenuke?**

Aurten Eibartik Suoker izeneko taldekoak datoz, burdina lantzen dute mailuarekin. Oso berezia da. Ikatza ekartzen dute, sua egin, burdina berotu eta egun osoan bertan egongo dira lanean.

Artisaubaino guztiak bertan lan egin eta beraien lana erakutsi behar dute, etortzen diren artisaubaino guztiak jartzen diegun baldintza da hori. Saltzera etortzen dira, produktu pila bat ekartzen dituzte saltzeko, baina kasu gehienetan lortzen dugu.

Eta bestalde, herriko artisaubaino



Artisaubaino azoka Okendon eta elikagaiena Mercero plazan egingo dira. Arkupea da muga.

## Azokaren arrakasta eguraldiaren arabera da. Jendetza izateko eguraldi traketak behar dugu.

asko egongo direla nabarmenduko nuke, hamar bat dira herrikoak.

**Sukaldari bat omentzen dute urtero herriko aitzogileek...**

Bai, Josemari Berasarte eta Cesar Bozalek aurten ere sukaldari berezi bati egingo diote euren omenaldia, aurreko urteetan Juan Mari Arzak eta Martin Berasategiri eman eta gero, aurten David de Jorgeri oparituko diote berarentzat egin duten labana. Egurdiaren egingo

ak antolatzen dituztenek kobratu egiten diete artisaubaino. Herrietatik oso politak edo erakargarriak dira, baina artisaubaino-erentzat, ez hainbeste. Artisaubaino gutxitzen ari dira, eta saltzaileak ugartzen.

**Aspalditik ari zara antolaketan?**

Bai, 28 urte hauetan. Hasieran San Pedro jaietan egiten zen, baina hor nahikoa ekintza zedenez, Santa Ana pasatu genuen. Uztailean azken asteburuko data ere ez zetorren ondo, herriar asko jada oportuna zedudelako, beraz, aurreko igandera pasatu genuen eta azken urteotan uztaileko azken aurreko igandean egin dugu.

**Zu nolatan hasi zinen honetan, artisaubaino al zinen?**

Ez, ez. Arlo askotan aritu naiz, denak ukitu ditut, baina "ofizio asko dituen pobre seguru" esaten da. Denen lana ezagutu dut. Oso polita da artisaubaino eurak beraien tailerretan ikustea. Niri asko gustatzen zait aurreko lana, artisaubaino beraiek bisitatzea joan, non eta nola lan egiten duten ikusi eta ezaugarritzea.

**Urtean zehar bisita asko egiten al dituzte?**

Bai, 14 edo 15 artisaubaino ikustera joaten naiz, batez ere, oso bereziak direnak, baserrietan bizi direnak... Adibidez Matxinbentako otargilea lagun mina dut eta tarteka egoten naiz berarekin, lan kontuengatik ingurutik pasatzen banaiz. Bisitatu ditut, larra lantzen duen Gatzagako beste lagun baten tailer denda, Zizurren kartoi harria erabiltzen dutenak, Lizarrako beste bizpahiru artisaubaino eta abar.

Elkarrizketa oso osorik txintxarri.info webgunean



Errazioak  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Entsaladak

**Eta ekainetik aurrera eguneko menuak**

Tel.: 943 37 17 42

Largonea Kalea, 1  
20160 Lasarte-Oria

Arkupe  
facebook.com/ArkupeTaberna